


• MATTIN •



Ibilaldi baten sinbolika

• IÑAKI BERISTAIN •

[ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARRA]

Han eta hemen aipatuenez, uste dut aski ezaguna dela dagoeneko, Gipuzkoako eliz elkarteak datorren larunbatean burutu nahi duen ekintza. Beste zenbaitetan bezala, Oñatitik Arantzazurako igoera oinez egingo du. Ez da, noski, kirol zaletasunez egindako ibilaldia. Bestelako esanahia du. Bi mailako esanahia duela esango nuke: barne-mailakoa eta maila sozialekoa.

Barne-mailari dagokionez, *Misioa 2000* ekintzak berrialdi sakona eskatu dio Gipuzkoako eliz elkarteari. *Jesu Kristorekin hobeto* dela jabeturik, bere oinarritzko jarrerak aztertu ditu. Bere fedeari berrialdi sakona eman beharraz jabetu da. Bere leialtasunak freskatu behar dituela ikusi du: Jesu Kristorekiko leialtasuna, aurrena; elkarte-barrurako leialtasuna, hurrena; eta gizartearekiko leialtasuna, azkena. Eta horretan eman ditu bere indarrak amaitzeaz dugun Garizuma honetan. Niretzako daukat, Jubileu urte santurako egin zitekeen aukerarik onena izan dela *Misioa 2000*.

Datorren larunbatean Arantzazura oinez joatean, barne-berrialdi hori erakutsi nahi dugu. Dena ez baita buruaz edo gogoetaz egiten. Arantzazurako ibilaldiak dinamika berri baten irudi izan nahi du. Gure fedea berritzeko erabakia adierazi nahi dugu. Jesu Kristori jarraitzeko gogoak erakutsi nahi dugu pausoz pauso, aldapaz aldapa. Gizartearen bideetara maitasunez ateratzeko enkargua onartzen dugula esan nahi dugu, bideetara ateraz. Fedea bidez lantzen da. Segizioa bidez burutzen da. Eta fedearen maitasunak bide-ertzetako zaurituak jaso behar ditu. Bidea ezinbestekoa du gure fedeak.

Baina esan dut, barne-maila ho-

rrez gain, baduela Arantzazurako ibilaldiak beste maila bat ere, maila soziala. Arantzazura baldin bagoaz, euskal gizarteari zerbait esatera goaz. Errespetu handiez, nor banakoaren aukerak behartu gabe, baina zerbait esan nahi diogu gure gizarte honi: *Jesu Kristorekin hobeto* dela! Ibilaldi honek, beraz, proposamen baten sinbolika izan nahi du, eskaintza baten irudi, esperientzia baten aitormen. Gipuzkoako eliz elkarteak ikusten baitu une honetan, zerbitzu handi bat zor diola gizarteari eta zerbitzu hori Jesu Kristoren berriena eskaintzea dela. Eta inork ez dezala gaizki hartu gure mezu apa-

Gehiago izateak garai batean eman ziezazkigutkeen harrotasunak joan zaizkigu; inori ezer ezartzeko ahalmenik ez dugu eta, egia esate aldera, ez dugu nahi ere; bakoitzaren erabakiak sakratuak direla jakinik, ez diogu inori inolako probokaziorik egin nahi. Gure ibilaldiak ez du, beraz, proklamazio haizetsuak egiteko asmorik. Apaltasun osoz goaz Arantzazura eta apaltasun osoz egiten dugu eskaintza. Badakigu denok dauzkagula, nekez erantzun daitezkeen galderak; denok dauzkagula, nekez ase daitezkeen egarriak; denok dauzkagula, nekez goza daitezkeen sufrimenduak; denok bilatu nahi dugula gure lanarentzat senti-

dua; denok nahi genukeela elkar maitatzeko indarra eta arrazoa.

bideetan idatzirik utzi nahi dugu jakin nahi duenarentzat, Jesusen berrionak sekulako edertasuna eskaintzen duela. Eta nor banakoarentzat ez ezik gizarteko harremanentzat ere ez duela galtzekorik Jesusen berrionak. Gizatasuna garatzeko, gizartearen airea freskatzeko, harremanak goatzeko, elkarri begietara onez begiratzeko, elkar onartzen jakiteko, elkarri barkatzeko,

“
*Arantzazurako
ibilaldiak dinamika
berri baten irudi
izan nahi du.
Gure fedea
berritzeko
erabakia adierazi
nahi dugu*

jatorrak; ez dugula berrionaren eskaintza bizieraren testigantza egin; askotan hitz hutsetan geratu zaigula gure fedea. Arantzazura igotzea erabaki dugu, geure fede-jarrerak garbitu eta gizarte osoari konbentzimenduz gauza bakar bat esateko: hobe dela Jesu Kristorekin! Fededunok Arantzazurako bidean izango gara apirilaren 15ean. Fedetik urrunduxea sentitzen den norbaitek bilaketan gurekin egin nahi balu bidea, ongi etorria izango da. Azkenean denok bide berean baikoz. Denok bide berean goazelako aukeratu dugu ibilaldi baten sinbolika. Eta sinbolika horren hitzez, *Jesu Kristorekin hobeto* dela esan nahi diogu euskal gizarteari!

... UR APALATEGI

Eskola eta demokrazia



Mahai inguruan sortu da eztabaida: ona al da eskola gorroto duten nerabeak hamasei urtera arte bertan mantentzea? Mahaiaren eskuinaldetik (kasualitatea ote?) ondoko argudioak ezetzaren berme:

–adin horretako haurrak kontrolagaitzak eta bortitzak izaten dira irakasleentzat hezkuntza sistema etengabeko bortxaketa

bailitzan bizi dutelako (egungo pedagogiaren porrota dela eta).

–zergatik ez utzi haurrei gogoko dutena egiten, hots, aktibitate intelektuala baztertzen formakuntza tekniko batean sartzeko? Ezen, denek gustuak berdinak izan behar al dira gizartean?

Mahaiaren ezkerretatik (hau ere kasualitate hutsa?) honoko argudioak:

–haur guztiei eskaini behar zaie gizarte honen antolakuntzaren eta osaketaren oinarrian dagoen ezagutza zientifiko zein kulturala.

–formakuntza intelektualetik *libratuko* diren haurrak gizarte konplexu honen itzaleko nagusien esku artean malguagoak izango dira, esploagarriagoak.

XVI. mendean sortzen den gizartearen konzeptio moderno eta humanista deritzona da aukera mota honek kolokan jartzen duena, ez da, beraz, inondik ere, ahuntzaren gauerdiko eztula. Zertarako balio du hezkuntzak, gizartearen beharrak asetzeko gauza izango diren teknikariak formatzeko? Eta *teknikari* diodalarik ez beza inork eskulaneakiko erdeinurik antzeman nire hitzetan; aitzitik, izan ere *teknikari intelektual* mordoa ateratzen baita unibertsitateetatik. Ala bere burua ahal bezain libreki gobernatzeko tresnak eman nahi zaizkio gizabanakoari? Ikusten denez, pedagogiak badu demokraziarekin zerikusirik. Gauza ezaguna da demokraziak demokratikoki bere burua abolitu dezakeela. Alegia, amaiera gabeko borroka dela demokraziaren aldekoa. Bada, antzeko zerbait gertatzen bide da pedagogiarekin: pedagogiaren emaitza zuzena den gizarte aurreratu batek pedagogiaren heriotza dekretu dezake, aurrerapen horrek berak sorturiko egoera dela medio (jende *gehiagi* unibertsitateetan lanpostu kopuruari begiratu, hortaz bidera dezagun jendea ekonomia erreala- ren beharren ildora).

...kornerra

MIKEL ELORZA

Konparazioak

■ Gu garen merkatu libre eta demokrazia parlamentario sasisozialaren arteko nahasketa honek atzerrian (atzeratutako herria?) zer arazo dituen genuen lehengoan hizpide. Hego Amerikaren bihotzean ikus liteke demokraziaren esklerosiaren latza. Atzeritik Fujimoriri ari zaizkio gutxienez bigarren bozaldi bat egin dezan, txukuntasun itxaropena galduagatik ere sikiera gardentasun itxura handiagoa emateko. Bolivian, berriaz, behialako irudiak dauzkagu (irudi gutxi, isiltasun *administrati-boa* markakoa baita): nekazarien altxamendua eta armadaburua dominaz apainduta telebistaz agertzen. Kalkulatua ote dago zenbateko gose eta odol kopurua behar den demokraziaren eredu *homologagarri* batera iristeko?

Gurean hauteskunde (santa) eske madarikatuan dabilzanen artean Peru eta EA Eren arteko konparaziorik entzun ez izanak harritu nau.